

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Otsagabia



Aurkibidea

Udalerria: Otsagabia

Sarrera



Nafarroa ipar-ekialdean dago, Zaraitzu haranaren goialdean. Iratiko oihana du iparraldera. Otsagabiaren udalerri mugakideak honakoak dira: Iparraldean Lekunberri (Nafarroa Beherea) eta Larraine (Zuberoa), ekialdean Itzaltzu eta Uztarroze (Erronkariko ibarra), mendebaldean Jaurrieta eta Aezkoako Abaurregaina eta Orbaizeta, eta hegoaldean Ezkaroze (Zaraitzu). Zaraitzuko ibarraren herririk populatuena eta garrantzitsuena da. Irigoien, Iribarren eta Labaria dira herriko auzo nagusiak, San Joan Ebanjelista elizaren inguruan daudenak; Anduñia ibaiaz bestaldean, berriz, Urrutia dugu. Otsagabiko euskararen ("uskara") azken hiztunak XX. mendearen bukaeran hil ziren. Zaraitzueraren aldaera zen Otsagabikoa. Gaur egun, berreskuratze prozesua abian dago euskara batuaz, eskola eta euskaltegien bidez. Horren ondorioz, biztanleen %12 euskalduna da.

- **Biztanleak:** 614
- **Euskaldunak:** %11,25

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **5**
- Pasarteak: **6**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **6**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Aitor Elortzaren Nafarroako grabazioak
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino

- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Teofilo Eseberri (1918-2002)

Euskara nahiko ahaztua zuen grabazioa egin zitzaionean. Euskaraz hasten den arren, berehala pasatu zen erdarara. Ematen du, gainera, egiten duen euskara apurra nahastu samarra duela batuarekin. Txikitan bazekien baina gero ahaztu egin zitzaion ia. Otsagiarrek Aezkoarrekin ere erdaraz egiten omen zuten. Apaizek izan omen dute euskara galtzearen erru nagusia: euskaraz egitea bekatua zela esaten omen zuten pulpitutik.

Josefa Zoko Moso (1905)

Otsagabiarra. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Pedro Juan Zoko Moso (1908)

Otsagabiarra. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Euskararen galera Otsagin

- **Hizlaria(k)**: Eseberri, Teofilo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Aitor
- **Erref**: OTS-001/001
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Abodi da "bortua", baina besteak méndiak dira. Seme-alabak ez dakite euskaraz, baina bilobak bai, euskara batua, beti ere. Pena ematen dio euskara galdu izanak. Aezkoarrekin ere ez zuten eurekin euskaraz hitz egiten.

Transkripzioa

- Ni eta ene lagunak juaten gera oihaneala.
- Oihanera.
- Al monte, oihana. Mendi "es el... lo mas alto. Los montes muy altos".
- Bortua. Ez?
- Bortua. Ez bortua. Mendia. Mendia. Bortua, bortua, guk esaten dizugu hemen bortua, puertua, Abodi horri, Abodi horri.
- Hori da bortua?

- Bortua, hori.
 - Bada bertze hauek ez dira bortuak?
 - Ez, ez, ez.
 - Bertze hauek oihanak?
 - Ez, ez, ez.
 - Eta semeei erakutsi diezu euskara?
 - Batere.
 - Batere?
 - Batere.
 - Ez?
 - Ez.
 - Ez, bi iloba baditut. Bi iloba. Hoiek... baina ematen dute oraiko euskara. Batua.
 - Batua? Eta lehengoa deus ez.
 - Deuse, deuse, deuse, deuse.
 - Eta pena ematen dizu?
 - Eni bai. Pena ematen dada, baina... horrekin bukatu da.
 - Zer egin, ez? zer egin... ez?
 - Bai.
 - Eta bertzerik, istoriorik edo, baduzu errateko edo?
 - Nola?
 - Istorio zonbait edo errateko baduzu?
 - Ez, ez, ez, ez.
 - Edo... aetzekin xardukitzen zenuen euskarara?
 - Aitarekin eta amarekin beti, beti euskeraz.
 - Ta aetzekin? Aezkoakoekin?
 - Aezkoakoekin? Ni izan niz... egon naiz hogeita hamahirur urte Irati bertan. Oihantzaina izan niz. Haiek ez zizien /eztizien/ erraten hitz bat ere. Orai hasi dituzu /tuzu/.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. San Juanetan iturriko ura hartu eta intsusak egosi

- **Hizlaria(k)**: Zoko Moso, Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: OTS-004/001
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
 Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: San Juanetako ohiturak Otsagin: iturriko ura hartu eta intsusak egosi.

Transkripzioa

- Aizu, eta, e, San Juan egunean zerbait egiten zen, egiten zenuen?
 - Ez, San Juan egunian pues da patrona. Herriko patrona da egun kori, San Juan ebangelista.
 - Bai.
 - Baia, baia ya... Bueno, pues festa guardatzen da, e?
 - Bai.
 - Festa guardatzen da. Bazko egunean hogeita bosta. Hogeita sei pues da erdian, eta hogeita zazpi baita San Juan, pues guardatzen da festa [...].

- Eta ez da egiten, e, surik edo?

- Ez, ez.

- “Hoguera”rik edo?

- Ez, ez, keben ez da San Juanetan.

- Herri batzutan bai, zomait herritan bai.

- “¡Hombre!” Pues hori... baia San Juan kori da? Iduri zaida eni dela gara, garragarzaroko... San Juan. Eztia?

- Bai, bai, bai.

- Hogeita laugarrena.

- Kori, kori, kori.

- Kura. Kura da su egiten di(r)enak [...], baia kebengoa da San Juan...

- Ebangelista.

- Bigarren abendua.

- “A, ya, ya, ya.” Bai, diziembre.

- “Diciembre. Claro, que muchos meses también son distintos en un vasco y en otro.”

- Kori, kori bai. Baia nik erraten dut eta, e, garagarzaroaren hogeita lau egunaren bezperan ez da, ez dea egiten e, surik?

- Keben deus´e, keben deus´e, batere ez.

- Eta ez da ere ohiturarik eta...

- Orai festa da erregian [...]. Bueno, festa da baia gente, gende hemendikoak ez du guardatzen festa egun kori.

- “Ya, ya.”

- Eta berze gisan ez zen festa ere ez, San Juan egunak len, orai artio. Ta ez da deus egiten keben. Pues trabajatzan da beste egunian bezala.

- Eta, e... San Juan egunean ez da ohiturarik keben e, gazteak e, ugaldeala... nola erraten da? E, xatxi, edo nola erraten da? “Bajar.”

- “Aquí al río.”

- Eta zangoak eta busti ta...

- A! Kori, kori da, zangoen xahutz(e)ra da San Juan, garagarzarokoa da.

- Bai.

- Ezta, ezta oraikoa.

- Ez.

- Uda da!

- Bai, bai, bai.

- Len, “se conoce que” xaikita faten zen zangoen, zangoen txahutzer a ugaldiala.

- Hori.

- Baia nik ez dut iza(g)undu kori.

- Ez, e?

- Ez. A(d)itu bai, baia iza(g)undu ez. Len, badaki ze egiten ginuen? Eztakiet nola, nola deitzen den... “Sabuco, sabuco” deitzen da erdaraz.

- Sanjuanlili edo?

- “No”, ez. “Bueno, pues” lili da. Pues faten gintzan iguzkia elki gabien sanjuan... “la flor del sabuco, a buscar la flor del sabuco íbamos pa, pal dolor de muelas, pal flemón, pa no sé qué. Pero yo de otra ceremonia no me acuerdo.”

- Zertarako? Zertarako? Zertarako biltzen zuten, biltzen zien?

- “Pues yo...” nik uste dut flemonandako.

- Flimonandako.

- Flemonandako, bapore.

- A!

- Egosten zen brasetra... lore kurak eta elkitzen zuen ke ta... gelditzen... algodona empapatzen ginuen bapor kartan, e, “pues”, deus ez zen izanen, baia, yaya!

- Bai, bai, bai. Ongi, ongi, ongi.

- Baia kostubre kori ginuen.
- Bai, bai.
- Baia beste gisan, deus ere, San Juan egunian, keben. Eta orai ez da flore edo lore biltzaira batrere faten. Ba! Bu [...]
- Eta nola erraten da: lore edo lili?
- Ez dakit! Lili ere bai.
- Lili, bitara.
- Baia lore. Lore, pues floriak, lore dra.
- Bai, bai, bai.
- Eta gauza txukatzen drenak, "eso", lore erraten dabaz. Lili draz floriak. Baia lore da, pues gauza txukatzen drenak, ya hazitako, takor, ta kala.
- Bai, bai.
- "¡Claro!" Bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eguberrietako giroa (OTS-004/002)

Otsagiko Eguberri aldiko giroa, oro har. Gabon-kanta baten zatiak ere abesten ditu. Errege bezperako ohiturak.

2. "Verbum caro factum est" izeneko gabon-kanta (OTS-005/001)

"Verbum caro factum est" izeneko gabon-kanta eta honen inguruko azalpenak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com